

Kamisetak saltzean hauek ematen duten irabazietatik eta marka desberdinekin kolaborazioak egitean aterako ditugu etekinak (kolaborazioetan marka desberdinak erabakitzen duten diseinuen kamisetak egingo ditugu).

Gure produktua eskuratzeko ordainketa errepikari motatakoa izango da. Diru sarrerak lortzea prinzipalki aktiboen salmentan oinarrituko da, baina, era berean, baloratzen dugu publizitatearen bidez egiteko aukera, beste enpresa eta/edo marka batzuekin egindako kolaborazioen bidez lortutakoa.

Gure produktua diseinuan material motetan etab. oinarritzen denez horren eta pertsonalizazioaren baitan prezio dinamiko bat izango duela esango genuke.